

OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA ASANBLADA	
Asanblada zk.: 3	Data: 2024-06-18
	Ordua: 17:30-19:00
	Tokia: Udaletxeko bilera gela
Gai ordena <ul style="list-style-type: none"> • Aurreko aktaren onarpena • Oñatiko Emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera. • Galdera eta eskaerak 	

1. Aurreko aktaren onarpena

Ahobatez onartu da

2. Oñatiko emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera.

Berdintasun teknikariak egin du kontseiluaren jardunaren eta ekarpenen gaineko hasierako kokapena. Aipatu da 2024rako dagoela aurreikusita HAPO-aren elaborazio prozesuaren gaineko jarraipena egitea, Herriko programazioaren gaineko azterketa bat egitea eta Diru laguntzetan berdintasun klausulak txertatzeko hasierako urratsak ematea Kultur arloko diru laguntzekin. Aipatu da Indarkeria matxista jasan duten emakumeekin egiteke zegoen balorazioa ez dela 2024an egingo baliabide pertsonalen gorabeherengatik eta 2025 urterako aurreikusi da lan ildo hau.

Zaintzaren auziaren inguruan, kontseiluak orain arte mahai gaineratutako behar eta lan ildoak gogorarazi dira:

ZAINTZAREN auzian urratsak ematen joan // ir dando pasos en relación al tema de CUIDADOS	EGOERAREN AZTERKETA: Zaintza diagnostikoa, elkarzabalekin lankidetzan. Nola ari dira antolatzen adinekoen zaintza lanak Oñatin? / análisis de la situación-diagnóstico, en colaboración con elkarzabal
	ERREFERENTZIAZKO ESPAZIOA. Zaintzaren behatokia sortu: zaintzaileentzat aholkularitza eta familiekin bitartekaritza / Un espacio de referencia; asesoría para las cuidadoras y acompañamiento a las familias
	ALTERNATIBAK SORTZEA. Bidebarrarekin elkarlana zein puntutan dago? Horri jarraipena eman dakioko? // Crear alternativas. Cómo está el trabajo con bidebarri?
	SENTSIBILIZAZIOA. Informazioa zabaldu eta familien sentibilizaziorako // sensibilizacion
	Aztertzea zein funtzio jokatu duen emakumion etxiak. (Emakumion etxiaren eraikitze prozesuan) // analizar qué función cumplirá la casa de las mujeres
	GURASO BAKARR en inguruko esku-hartze ildoak identifikatu // Identificar líneas de trabajo con familias monomarentales

Izarok gai honen inguruan orain arte eman diren urratsen berri eman du. Une honetan oinarria finkatu bada ere, urteko lan proposamenaren diseinu fasean daudela adierazi du eta proposamena zehazten denean kontseiluaren aurrean aurkezteko konpromisoa hartu du. Era berean, eragile ezberdinek eta espazio ezberdinetan (eskualdean kasu) gai honen inguruko lanketak egiten ari direla eta, koordinaziorako eta dialogorako espazioak zabaltzeko beharraz hitz egin du. 2024 urterako 20.000€ko aurrekontua dauka udalak, lehenengo urratsak ematen joan ahal izateko.

Ekarpenak jaso dira azaldutakoaren inguruan, eta besteak beste, zenbait lan ildo zehaztearen beharraz hitz egin da (zaintza beharren gainekoa, esaterako), lan ildoen artean beste batzuk ere txertatzeko proposamenak jaso dira (amatasun eta gurasotasunaren gainekoa, familia eredu desberdinak edo erantzunkidetasunaren gainekoa) eta etxebizitzaren gaia ere aipatu da. Zentzu honetan, HAPOaren lanketan ere ikuspegi hau txertatzearen beharra aipatu da.

Estrategia orokor bat planteatzeaz gain, lan arlo bakoitzeko akonpainamendua eta lanketa espezifikagoa egiteko beharra ere aipatu da, eta horretarako jakintza eremu bakoitzeko pertsonal espezializatuaren beharra.

Egitasmoaren koordinazio, ideazio edo kontrastea nola antolatuko den erabaki gabe dago oraingoz, baina adierazi da egoki ikusiko litzatekeela herriko eragileek ere parte hartzeko espazioak sortzea.

3. Galdera eta eskaerak

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:00etan.

TRADUCCIÓN

Podeis traducir el contenido de este documento en:

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

O solicitar una cita telefónica, para un resumen oral del contenido del mismo. berdintasuna@onati.eus